



BALEN AURKAKO BALAK

Lasa y Zabala filma (Pablo Malo, 2014)

Iraupen osoa: 106 minutu



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

MAILA

Batxilergoa.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 100 minutuko modulu baterako pentsatuta dago. 45 minutu pelikulatik proposatutako pasarteak ikusteko, eta 55 minutu ondorengo jarduerarako.

HELBURUAK

- + GALen jatorria, testuinguru historikoa, praktika bortitza eta jarduera-aldia ezagutzea.
- + Terrorismoa beste terrorismo bati, ETarenari, aurre egiteko metodo gisa erabiltzeak izan zituen ondorioak baloratzea, haren bidegabekeria eta alferrikakotasuna aitortuz.
- + Edozein terrorismoaren biktimen testigantzak errespetatuz, haien sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzea.

BALIABIDEAK

Lasa y Zabala filma. Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta gailu mugikorrak, hala nola smartphoneak edo tabletak.

EGILEA

Roncesvalles Labiano

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen egokiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu, eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetza baketsuaren alde egiteko.

IRADOKITAKO JARDUERA

Jarduera hasteko, 1983an gertatu zen José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabalaren bahiketa, tortura eta erailketaren benetako historian oinarritutako *Lasa y Zabala* (Pablo Malo, 2014) filmaren honako zati hauek ikusiko ditugu:

1

0 minututik 12.20era:

aurkezpena eta bahiketa 1983an

2

20. minututik 49.40.era:

GALak, ikerketa eta epaiketa 1995ean, ehorzketa

3

100.52 minututik 102.30era:


kondenak

(Denbora izanez gero eta nahi izanez gero, filma osorik proiektatu daiteke).

Iradokitako zatiak ikusi ondoren, ikasleek GALi eta "gera zikinari" buruz zerbait gehiago ikertzea eta indarkeriaren erabilerari buruz gogoeta egitea proposatzen dugu. Lauzpabost lagunek taldetan bilduta, ikasleek beren gailu mugikorrak erabil ditzakete honako galdera hauei labur erantzuteko:

Zer esan nahi dute GAL siglek? Nor ziren eta zer nahi zuten? Zein alditan jardun zuten? Zenbat hildako utzi zituzten?

Talde bakoitzean idatzitako esaldiak edo ideiak parteka daitezke, eta, amaitzeko, irakasleak edo ikasleetako batek testu hau irakur dezake:




GALak

"Talde honen [GALen] atzean terrorismoaren aurkako politikaren arduradun batzuk zeuden, legez kontrakotasunerantz lerratu zirenak, eta, horrela, borrokatzen zuten terrorismoarekin parekatu ziren. Buruzagien artean goi-kargu politiko sozialistak (Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernadore zibilak eta 1982tik 1988ra bitartean Barne ministro izan zen José Barrionuevo bera, Estatuko Segurtasunaren zuzendari Rafael Vera barne) eta Estatuko Segurtasun Indarretako agintariak zeuden. Horien artean, Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibilaren orduko komandantea nabarmendu zen, Gipuzkoako Institutu Armatuaren 513 komandantziaren buru zena. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, eta frankismoaren garaiko Frantziako politikaren herentzia gisa, Frantzia babesleku bat zen oraindik ere ETako iheslari askorentzat, baita bere buruzagitzaerentzat ere. Han kontzentratu zuen GALEk bere delitu-jarduera, bahiketak eta hilketak eginez, ETaren terrorismoari dagokionez Frantziako politika aldatzeko ahalegina eginez.

Atentatuak egiteaz arduratzen zirenak mertzenarioak ziren, Espainiako Gobernutik erreserbatutako funtsetatik kobratzen zutenak, bai eta polizia eta guardia zibil batzuk ere, legetik kanpo mendekua bilatzen zutenak, Euskadiko ESlen aurkako presio-giroan. **GALen ondorioak, azkenean, sustatzaileen aurka bihurtu ziren, eta izugarritzko kaltea egin zioten ETaren terrorismoaren aurkako borrokarari, Estatua eta bere erakundeak zalantzan jarritz.** Ezker abertzaleak Ipar Euskal Herrian zituen iheslarien zirkuluak beldurtzeaz gain, "gera zikinaren" bultzatzaileek Estatuan zituzten goi-mailako erantzukizunak eta praktika horiek sakon ikertzeko eta zorrotz zigortzeko borondate politikorik ez izateak, PSOE, Espainiako Alderdi Sozialista Langilea (Espainiako Gobernua garai horretan sostengatzen zuen alderdia), kaltetu ez ezik, demokrazia bere osotasunean kaltetu zuen ere, bai eta haren irudia asko hondatu ere (Woodworth, 2002).

GALen existentziak argudioak eman zizkion ezker abertzaleari Espainian ezer aldatu ez zela eta ETaren indarkeria beste batzuen erasoan aurrean defentsarako erreakzio bat zela esateko. Bere existentziaren puntu gorena 1984an eta 1985ean izan zen, eta bederatzi eta hamaika



GALen izenean gutun bidez bidalitako heriotza-mehatxua (1985/06/12). AMB-BUA.

pertsona hil zituzten hurrenez hurren. Horien artean, ETako militanteak eta zibilak zeuden, erakunde terroristekin inolako loturarik ez zutenak, "albo"-biktimak edo jomuga nahasketak. Laburbilduz, **GALak, ikuspegi moraletik gaitzesgarriak izateaz gain, kaltegarriak izan ziren maila politikoan, diskurtso nazionalista erradikala indartu eta terrorismoaren aurkako alderdi demokratikoen batasuna oztopatu baitzuten.** Batasun hori 1988ko urtarilean lortu zen, Ajuria Eneko Ituna (Euskadi Normaltzeko eta Baketzeko Hitzarmena) bezala ezagutu zena sinatu zenean. Hilabete batzuk lehenago, GALEk bere azken hilketa egin zuen, ETarekin harremanik ez zuen gazte antimilitarista bat erail zuen, Juan Carlos García Goena".